aditzae iran ciran guien erdian egun zuena; bida eguniar
erritarik utci ciertran aditzale guiaz, eun edo kontata ciertran
guera onie berriaregin; eta zu eien egun eraqueen onie, Je
susen amorox betear en egotea. Bestela ore, beraganako

5.—Primera linea en otra grafía.

Para el dia de Pascua de Resurrecion.

Suscexit enim est hic. Mat. 16.

Gaya

Iesusen piztutzeac erakusten Dijez, uola piztu beas!
dien konfesioz pecatazi illaz!

Iesus ill ordoan; piztu zaharco uste guia galduz
billi ziran Apostoliaz, pizturiac Iesu iensi, eta eragutu arte
guian: Arda agurkata ore, diuen eragutu lembicico alde-
an, eta erriqui-nirei zien beren barrunbearen leunquen uste
galdu zu, bista zan-arazi ore, uste guenduen, Txakellaz
guioe itzaroa guindula queretegia, eta Errromatar-
ren mendatik, eta uztola urtean da gure uste guia; bada iru-
egun da ill zahar Judutarren elurri, eta ez da oraindie a-
queri; eta zu baino guztioago dana, bero sepulturan izandu
diran cembait Immaculaz irutu gaiturte, ecarri diqueen ber-
riarequin; bada diso, ez duela arriatu an gorputz illa,
eta gorputz au erarri zan. Sepulturan, euski diturtela am-
bitit Hengozun: eta au aditu diuen apostole hic esan ore
dute, ametsa hala orien esan: vita sunt ante illas. sicut
Adiutorium (Luc. 24. 51) Baina batzak, eta bestearaz las-
ter eragutu zion, eguna zala, Iesu piztu zala, Immaculaz
orrie ormanen zion berria. Hitz misterio batore gabe, cor-
dior gauna onen garbian gaurio Evangelio Santuak.

Etran gure Segulardon quisacoia, Iesu ilaren gor-
putza ideguzti zuen; quella guiltzatuaren quisacoia zan
Iesu. Sepulcro au; eta an sartu zuen, eta utri zion Iesu-
en gorputz illa, berri, carerie, eta besta gaurarie garbiko e-
man gabe. Beren aromak erosioie, Zarra goizean joan li-
ran era Maria Magdalena, Jacoben Maria, ta S. Jerome, us-

6.—Seis primeras líneas en otra grafía.

FRANCISCO ONDARRA

Bada auxo d' equitor sistema enongo ectoac pectation
dilaterrae.

i Bada ero gaura dica queon roci onoo
etosaco pectato beas dilaterrae? Bada degon compa-
tio; ill arte queian ondo incitrea; Iungoicoan concia;
dilaterrae gaura on queiac eguitos; mair compasacion
ta comulgatcea; Mora Santinae emunor; bocatrat bi
moriac emunor; Jesus Sacramentatua Gliran visi-
tatuor; eguitos deguitos ohas queiac bascatuor;
dilaterrae merodeac bestas equitos; barau, ta pain
tenor, Jesuson Ama ota Santu queiac honestor;
eta Spiritu Santuac dion becela; Invaduac galdu-
te; aldegum on queia eguitos; ota queon amorem
queiac mcentrea; quidamque potest manus tua,
instantea operata (Ptol. 3.10.) Bada cembat ero guaya-
go enen eguitos degum, austat roci obcasac iran-
go queia Secula queian. Iungoicoac degula, bada,
maria; ota ota leu adioraci dian besta bi gaura ac
eguitos, existra on batdegum queon eguitos buca-
toeo, eta arquonia ixi:teo. Alcavade oioco gloria
Amor.

7.—Página en otra grafía.

bada ause da eguztuen dildena, emengo echeae prestatuen dildene...

; Oñáa cer gauia dira, queron zori osco echeratz
prestatua berr diruguna? Bera degun Confesioare, ill arte
guiaz ondo eriztear; Iaungoizaren izenari, aldiugun gau-
ia on guiaz eguztea; main Confesioarea, ta Comulgatioa; me-
ta Santua eizunear; oestiat Lurrazoe emanari; Jesus Ik-
irrementatua Blera visitatua; eguzten diruguen charque-
rira baratzean; aldiugun mesedear besteri eguztari; ba-
laur, ta penitenciar, Iesuaren Atma, ta Santa guiaz honra-
ria; eta Espiritu Santua ekin Bocela, ordurie galdu zabe,
aldeguen on gurtia eguzten, eta queron animari premiac
7.11 centea: quod cumque protest murus tua, instanter ap-
pare. (Iecol. 9.10.) Bada combat ere guztago erron eguz-
ten degun, ambot zori obearaz irango guzten. Sorela gu-
zian. Iaungoizoa digula bada gracia, au, ta leu adierazi
diran. Beste bi gauiaz egizteko, eriotia on batetikin que-
ren eguziaz bideatu, eta arguenie iristea, Iternitate ora-
ca gloria.

Vera el domingo 16, después de Vascua de
Vintecostes.

Et iheri observabunt eum. Lue. 14.

Gaya.

Per diran, ta nondie datoen sorpesta, ta juicio gain-

8.—La página precedente en la grafía general del segundo autor.

TROZOS ESCOGIDOS

Vamos a ofrecer en esta sección varios trozos escogidos, para que el lector pueda juzgar por sí mismo la calidad literaria de las pláticas. Los criterios ortográficos son los expuestos en la introducción a la sección VOCABULARIO. Todos los trozos están entresacados de las pláticas del segundo autor.

a) *Suaren egitekoa* (67) «Quehacer del fuego».

«Bada gaur, bigar ta beti zuk esanagatik maite dezula ta amatzen dezula zere Jaungoikoa beste guzia baño geiago, ustela dá arganako zure amorioa, baldin egiten ezzapezu obrakin itzakin ziniona: *Si operari renuit. amor non est* (hom. in Ecech.); amorio ona alabaña dá, santu berak dionez, suaren gisakoa eta suak ez daki geldirik egoten. Suaren egiteko guzia dá beti beti berotzen, erretzen ta argi egiten aritza. Sua zabaltzen ta luzatzen da al duen guzia edo alik ere geiena; bada lurpetik edo arri tartetik ateratzeagatik, an sarturik arkitzen bada, urratzen ta botatzen ditu suak gañeko arri ta mendi guziak eta non-nai egiten du bere aterabidea. Eta au guzia egiten du geldirik ezin egonez.»

b) *Minbera da aur jaioberria* (69 s.) «El recién nacido es delicado».

«Lanez ta nekez izutzen ez dana da Jesusek gugandik eskatzen duen amore langillea, eta gure amore au dá alde onetatik ere Jesus beraren amorearen erakoa; bida neketan ta eskergabeen artean arkitu zan jaio zaneko gure Jesus maitagarria. Jesusen orduko neke gogorrak adieraziak gelditzentz dira len esan degunarekin, noiz, non ta nola jaio zan agertu degun denboran; bida badakizu zein ozkorra ta zein minbera dan aur jaio berria. Badakizu jaio orduko oial berotan bildu ta seaskan luma edo koltxoi leunen gañean ezarri ta estalita ere, negarrez ta karrasiz egon oi dala aur gaxoa, gela beroan ta aizerik sartzen ez dan tokian egonagatik ere; ta badakizu, aditu dezunarekin, zenbat *otzbide* ta negargai arkitu zituen Jesusek etxola txar urratu batean jaiorik arkitu zanean gelarik, seaskarik, lumarak, koltxoirik, surik edo berogarririk bat ere gabe; bida egiaz jaio zan bazter guzietatik edo askotatik beintzat aizeak sarbidea zeukan ganadutegi batean. Baña ala ere etzan oztu ez eta epeldu ere Jesusen guganako amore aundia.»

c) *Sorginlaria* (343-345) «El nigromántico».

«Adi ezazu sorginketako gauzak zekizkien batek bein egiña eta egin zuenari begira zegokan bati gertatua.

Joan ziran erritik bein sorginlari nigromantiko au ta beste onen lagun batzuek atsegintasuneko (sic) egun bat bestetan igarotzera udako egun bero batean. Eguraldiak baño agitz geiago berotu zituen ibilliak, jostaketak eta bazkariko jate ta edate galantak. Eguzkia zerbait erori artean etzekiten zer egin beroz zeudenak, eta orietako batek esan zion nigromantiko sorginlariari josta zedilla deabru gaiztoarekin eta ager zezala ekuskari bat edo beste. "Barka zazu, adiskidea", erantzun ("eranzun") zion ark, "bada ekusia daukat enkantuko deira deabrua datorren denboran, itzulten (sic) dala irabazi onarekin bere infernura. Bego, bada, dagoan tokian eta ez dezala gaitzik egin emen gure artean".

"Zer gaitz egin bear du?" esan zion bestea. "Eskatzen zatzunik ez egiteko aitzakiak dira oriek eta ez besterik". Au aditzean, beldurrez ta naigabez beterik bazan ere, artaratzen da nigromantiko tristea. Kenerazten ditu gelatik bear etzitzutzen gauza guziak, egiten du inguruko arrasto alik zabalen bat bere sorginkerietako zuen zigor batekin eta esaten die presente zeudenai: "Begira, ez du emen batek ere zer azkazalik sartu, sekulako galdu nai ezpadu".

Au esan eta asten da bere zigorrarekin zenbait arrasto ta beste gauza egiten, eta ots-egiten dio bere adiskide deabruari ager dedilla an ekuskari ón batekin. Ark au esan bezain laster, an agertu zan, ark zigorrarekin egin zuen inguruuan, arbola ostodun ederrez egiñikako paseo itzaldun leun bat, zirudinez agitz luzea; eta bazterretan agertu ziran aitz bizian egindako (zizallu gisako) asientu edo jartoki ederrak, iñor bazan aen (sic) artean an eseri nai zuenik; baña deabruaren beldurrez, etzan sartzera atrebitu iñortxo ere.

Bat batean kendu ziran andik arbola eder, paseo luze, belar leun ta aitz zizallu edo katabera egiñak. Andik laster erakarri zituen bere zigorrarekin nigromantiko ark berak nork daki zenbat soldadu zaldizko, ejerzitu izugarri bi konpontzen zituztenak. Guziak zetozeren arma zorrotz izugarri zuriakin; eta beren zaldiai espuelak sartuaz, bazijoazen alde batekoak bestera ta bestekoak batera, bizitasun ezin geiagoko batekin. Baña batak bestea an ill (sic) bear zuela zirudienean, kee (sic) biurtzen ziran bata ta bestea, ta laster galdu zan ekuskari au ere.

Agertu zizten deabruak era bereko beste zenbait ekuskari ere begira zeudenai eragiteko sekulako beren kaltetan egingo zuena. Agertu zan án azkenean sala guztiz eder bat, apaindua urezko ispilluz ta beste milla edergarriz; eta sala onetan agertu ziran guztiz ederrak ziruditen zenbait neskatxa, bakoitza erregiñarik ondoena jantzia ("jancia") baño agitz apainduagoa. Guziak dantzatzen ziran ezurrik etzutenak bezela. Eta infernuko deabru gaiztoak ziran neskatxa itxuran an zebiltzanak eta eren buruai ta soñeko guzai nai zutena eragiten zienak. Noizean bein iristen ziran inguruko arrastora eta luzatzen zioen eskua bein batari ta bein besteari, erakin dantzan erabilli

FRANCISCO ONDARRA

naiez. Denbora berean egiten zuten alegiña begiratze ariñakin, keñu losentxariakin eta eztizko itz leunakin, begira zeudenetatik bat bakarra bazan ere án sar-erazteko, eta azkenean iritxi zuten deseatzen zuena; bada batek luzatu zion bere eskua dantzari bati eta onek, eskutik arturik, tiratu zion beregana eta ura an sartu zaneko, joan ziran ura ta dantzari deabru guziak eren salarekin ta mutillarekin infernura, an beren dantza gaiztoak bukatzena. Berak zuen kulta, zerren esan zion mugaz nigromantiko bere lagunak etzedilla sartu, sartu zan arraiaren inguruau; baña sartu zan berak naiagatik.»

d) *Balearen arrapatzea* (447 s.) «La pesca de la ballena».

«Arrai aundiegia da balea garrangarekin arrapatzeko, eta au atxitzeko billatzen du arrantzale (“arranzale”) mariñel (sic) arpoi bat bere sokarekin. Txaluparen ondoan, bada, ekusi orduko, artzen du esku batean arpoia, biltzen du bestean ari ditxekon soka ta txaluparen gañera igorik, tiratzen dio baleari bere golpea saietzera (“sayetcera”). Arpoiak baditu garrangaren gisako trabak eta bein ondo sartu ezkerro, barrenean gelditzen zaio baleari arpoi-punta trabaduna. Baleak orduan artzen duen miñarekin sartzen da bereala urpean. Ematen dio mariñelak soka eta badarraika bere txaluparekin, zerren dakien ez duela atsnaserik artzen urpean eta laster agertuko dala an edo emen.

Ur gañera datorreneko, biltzen du mariñelak arpoi-soka bale erituaren aldean arkitzeko bere txaluparekin. Aratzen dira laster edo beintzat al duen lenena aren lagun txalupadunak. Saiez (“sayetz”) bakoitzean sartzen dioz-kee batak eta besteak eskuan dituzten burni zorrotzezko lanza luzeak, egiten dizkeen zulo guzietatik odolez ustu eta lenbaitlen ill-erazi naiez. Orduko oñaze berri oekin urratu nai ditu baleak bazterrak eta, berriz itxasoan ondaturaz, badabil urpean odola ta odola dariola, bearrok berriz ur gañera dakkaren artean. Berriz agertzen daneko, an ditu aldamenean mariñelen lanza berriak eta egiten du leneko aldiari egin zuena; baña ez len bezain aserre audiarekin, zerren len baño gutxiago dan duen odola ta indarra. Eta urrengoan edo beste ager-aldiren batean gelditzen da betiko ur gañean eta lanza lanzaren ondoan emanaz, kentzen dioe duen odola ta bizia, nai bezain aisa; eta txalupari loturik beti eskuan eduki duen sokarekin, badaramate arraunka ur-bazterrera; kentzen dioe duen gizena, urtu ta lumera egiteko; erre ta jaten due giarrea ta saltzen due beste guzia.»

e) *Dionisio-Damokles* (454-456) «La espada de Dámocles».

«Izandu zan Sizilian Dionisio zeritzan errege tirano gaizto bat. Aldetik ekusten zuenak uste zuen ura zala munduko gizonik zori obekoena, zerren ekusten zuten ematen ziozkala bere buruari nai zituen atsegintasun ta kon-

tentu guziak, onak edo gaiztoak izan, erreparorik gabe. Damokles ("Democles") zeritzan eta erregeren aldamenean ebill i oian gizon jakintsu batek losentxaz ta erregeri atsegina egin naiez, esan zion egun batean: «Jauna, baderitzat munduko atsegintasun ta deseo on guziak bildu dituzula zere biotzera eta ez dala zu bezain zori oneko gizonik jaio ere. Jaungoikoari eskerrak guziagatik».

"Eskerrik asko, Demokles", erantzun ("eranzun") zion errege. Dionisiok, "orain agertzen ("aguetcen") didazun berri onegatik. Eta izan dezazun zuk ere parte nere atsegintasun orietan, geldi zaitez gaur ta afalduko dezu nere maian". Ezin obea izan zitekean erregeri ta erregeren maiko lagunai prestatu zitzaien afaria. Eta afal ordua etorri zanean, eseri ziran guziak maian, bakoitzari erregek señalatu zion tokian. Jarri zan, bada, Demokles magi gabeko ezpata zorrotz bat gaindik beera zintzilika ("cincilica") zeukan silla batean; baña jarri zan an agindutako tokian eta non jartzen zan edo zer peligrotan esertzen zan etzekiela, eta atseginez ta pozaz jarri bazan ere, laster asko ito ziran poz ta atsegintasun oek. Bada lenbiziko edan-aldian burua zerbaite goratu ta ekusi zuenean, bere gañean zeukan ta erortzen bazan an bertan josiko zuen ezpata zorrotza, Jaungoikoak daki nola gelditu zan eskuan zeukan urezko taza bere eskutik bota gabe; bada ain otza ta arritua gelditu zan bere burua tranze artan ekusi zuenean.

Taza eskutik utzirik, aldatzera zijoan andik bere silla, baña: "Ez, Demokles", esan zion erregek erdi aserreturik, "zaude geldirik zauden tokian; ez da zer ortik mugitu, nai ezpadezu josi *zaitzan* (sic) ekusi dezun ezpatarekin nere soldadu batek edo bestek". Artu zuen orduan Demokles burutik oñerañoko izerdi otz batek, eta egondu zan arri egiña bezela afaria bukatu ta erregek bere aldamenera deitu zuen arte guzian; eta egondu zan bokadurik artzeko gogorik gabe eta artzeko ere eskumuturretan talentu gabe edo indarrak etzuela eta noiz ezpatak josi ta illa utzi bear zuen etzekiela.

Maiko aldia egin ta jaikitzeko baimena izandu zuen ez-baidan ("ez baidan"), kendu zan Demokles bere ezpatapetik eta egin zuen ai bat, erioaren atzaparretatik atera balitz ("baliz") bezela. Galdetu zion orduan errege Dionisiok: "Demokles, zure gogoac (sic) izandu dira eman dizudan afaria ta aditu dezun musika?". Burua bildu ta sorbaldak igotze batekin erantzun ("eranzun") zion Demoklesek zegokan guzia. Erregek au ekustean eta adiskideak ziran bezela, esan zion Demoklesi: "Ondo seguratura neukan, bai, zure gañeko ezpata; eta ala ere orrenbeste iztu ta naigabetu zaitu, Demokles. Bada jakin ezazu baditudala nik ere nere biotz gañean ez bat, baizik milla ezpata. Nola, bada, uste dezu zori oneko gizona naizala ni? Baldin bazeñeki zenbat bildur, zenbat naigabe eta zenbat egiteko nekagarri sankaka (sic) dauden nere barren onetan, besterik esango zenduke. Gaur nai dedanak as-

FRANCISCO ONDARRA

pertzen nau biarko eta badet beti nerekin beñere asetzen ez dan deseo bat edo beste, ta besterik badirudit ere, zori gaiztoko gizon urrikarria nago”.

Au da errege gaizto Dionisiok ziona.»

- f) *Deabrua Jaungoikaren tribunalean* (542-546) «El diablo en el tribunal de Dios».

«Jaungoikoak bialtzen baligu bere zerutik edo infernutik bat, eta onez baletor au, esango liguke jakintsu (“jakinsu”) baten aotik Espiritu Santuak bein esana. Badakizu zer? Berak diona: Ikasi ezazu, dio, eta akorda zaitez Jaungoikoaren tribunalean neri gertatuaz; bada au bera da an zuri gertatu bear zatzuna: *Memor esto judicii mei, sic enim erit et tuum.* (Eccl. 38.23). Eta au bera litzake beste mundutik onéz letorkigunak esango ligukeana.

Argandik au aditura, galdetuko giñioke: Eta zer dá án zuk ekusi dezuna edo zuri gertatu zatzuna? Nik ez dakit orduan ark erantzongo (“eranzungo”) ligukeana; baña badakit erantzun lezakeala San Agustiñek esaten diguna, eta onek esaten diguna da: Bere gorputza utzi bezain laster arkitzen da il danaren anima Jaungoikoaren tribunalean. Eta kontu guziz estua artzen dan tribunal artan arkituko du animak garaiko aldetik bere Jaungoikoa, ezin geiago aserre dagoan juez egiñik: *Superius judex iratus;* azpiko aldean edo bere oñen azpian idukiko du irikirik deabru galduaren infernu izugarria, betea sufrezko suz, illunbe beltzez eta anima gaxoa án tragatzeko amorraturik dauden ezin konta ala demonioz: *Inferius horrendum chaos;* eskui aldetik agertuko zaizka bere bizitzan egin dituen pekatu audi ta txiki guziak, munduko suge ta sierpe izurdunak baño agitz geiago izutuko dutenak: *A dextris peccata accusantia;* ezker aldetik ekusiko ditu konta al baño deabru geiago, suzko kako izugarriakin artu eta berekin infernura eramateko prest daudenak: *A sinistris infinita daemonia ad supplicium trahentia;* eta guzien gañean bere barrun-bean arkituko du, ozka ta karrasika salatuko ta urratuko duen konzienzia: *Intus conscientia urens.* Eta gisa onetan an arkitzen dan anima gaxoak nora iges egingo du edo zer egin dezake? *Quo fugiet peccator sic deprehensus?*

Tribunal artan ez da deabrua agertuko, dio Doktore Santuak, isillik egoteko, baizik agertuko da an arkitzen dan animari al duen gaitz guzia egiteko. Baña berez gezurtia bada ere, gezur gabe eta egia zorrotza esaten duela egingo dio al duen gaitz guzia animari; zerren ez da (sic “da” y no “dan”) atrebituko ezergatik ere juez aren aurrean gezur-jokoan aritzera. Lenbiziko laná án deabruak egingo duena da, dio, bataioko bere itzarekin animari begitan ematea; bada galdeko (sic) dio: Oroitzen zera bataioko grazia iristeagatik orduan esan zenduena? Oroitzen zera nola grazia au iritsi naiez, betiko esker gaiztoak eman ziñiozkan deabruari, deabruak eragiten dituen aragi-lan

gaiztoari (sic) eta mundu arroaren erakeri guzai? *Abrenuntias Satanae et operibus ejus et pompis?* *Abrenuntio.* Bai, ala da; ezin uka dezakezu.

Ondo da, esango dio gero ondoren deabru amorratuak. Eta nerekin beti aserre arkitzen ziñan zu? Anima onaren ebillerak izandu dira gerotzik onera zuk ekarri dituzunak? Etzera zu geienean edo askotan beintzat nik deabru galdu onek nai nuen gisan ebilli? Etzidazun (sic) zuk atsegin egiten neri, zere etsai galduari, eta atsekabe Jaungoikoari? Nik erakusten nizuna agitz gauza gogorragoa izanagatik Jaungoikoarena baño, Jaungoikoarena alde bat utzirik, etziñan lotzen gustoz nerearekin? Ezin ukatu dezu. Neri atsegin egiteko, galtzen zenduen zere dirua festan, jokoan, tabernan, familiaren dñutan edo era bereko beste gauzetan; eta Jaungoikoaren izenean etziñien ("elciñien") ardit bat ematen animen mezai, sakramentu audiaren argiari, ez eta pobre gaxoai ere. Etziñion ordu erdi bat eman nai Jaungoikoari egunean mezatan, liburu batean edo orazio garbi bat egiten; eta ordu osoak, arrasalde (sic) asko eta egunaren parterik geienak igarotzen ziñuzen tripa-zankerian, festan, neska-bisiteten, mutil-dantzan ("—danzan") edo gogo gaiztoak nai zuen beste gauzetan. Jaungoikoari atsegin egiteagatik etziñuzen bellaunak agitz urratzen, ta baraurik ateratzeko eta beste gauza onak uzteko etzitzaitzkitzun falta aitzakiak; eta nik, zure tentatzalle onek, nai nuen (sic) joan-etorrietai eta beste gauza txar askotan galdu ziñitzan gau-egunak, eta agitz orretan urratzen zenduen zere osasuna ta burua. Ez da onela? Beraz esan gidazu (sic "guidazu"): Zer da au zere gisará bizitzea baizik? Zer zan au Jaungoikoarekin aserre ta nerekin adiskide izatea baizik? Au dá bataio santuan eman zenduen lenbiziko zere itza osatzea? Orra orduan deabru gaiztoak adieraziko dizuna Jaungoiko beraren aurrean.

Artuko dú geró beste biderik ere, eta galdeko (sic) dizu: Zer egin dezu zere denboran bataio berean eman ziñutzen beste bi itzakin? Osatu edo urratu egin dituzu? Ekusi dezagun. Bautismoan eman zenduen bigarren itza zan, aragi nastuak eskatzen dituen eta nik eragin oi ditudan gaiztakerietan etziñala sartuko sekulan. Baña egin dezu zuk zure itz onek ziona? Ez dezu askotan ausi zere itz on au? Ez dezu, zere gogo gaiztoari atsegin egin naiez, itzez, gogoz ta obraz zikindu Jaungoikoaren lege santa (sic), bataio berean gordeko zenduela bein ta berriz adierazi zenduena? Egin bazendu zure itz onek ziona eta bizitu baziña garbiro, izango zenduen izandu dezun baño osasuna (sic) ta diru geiago, biziko ziñan bizitu zeran baño luzaroago; etziñan gaur arkituko arkitzen zeran tranze gogorrean, eta igoko ziñan zeruko atsegintasun zori onekora. Baña ausi ta urratu dezu zere itza, bizitu zera zere aragi loiak eta nik nai genduen gisan; eta orain izan bearra zera nere lagun zere zori gaiztoan.

Badezu orretarako gai geiago ta geiago ere. Bada lenbizikoa ta bigarrena bezela, ausi dezu zere bataioko irugarren itza ere. Itz onek ziona zan etziñala

FRANCISCO ONDARRA

sartuko mundu eroak eta buru aizatu batek billatzen dituen (sic) arrotasun sutu ta apainketa zoroetan. Baña bideak eta moduák eman dizun aldi-oto, apaindu zera zere alegiña (sic) guzian. Ez diozu barkatu nai zenduen oná egin dizunari, ez eta nai etzenduen itz bat esan dizunari ere; eta soberbia ta arrotasuna da okasioak zekarren guzian zuk agertzen zenduena. Eta orra nola bizitu zeren zere bautismoan esan zenduenik batere agin gabe.

Orduan esango dio deabru berak Jaungoiko juezari: Jauna, itzez zuretu zan anima bataiatu gaizto au nerea da pekatuaren medioz: *Eguisse (sic) Judent, judica meum esse per culpam, qui tuus esse voluit per gratiam.* (Orat. Cont. Jud. 6.4.)... Orra infernunik datorren animak esan lezakeana. Eta oni ditxokola (sic), esango ere lizuke: Beretu ninduen deabru gaiztoák, baita eraman ere betiko infernura; eta andik etorri naiz gaur, desditxa onetan erori ez zaitezen, au zuri adierazterea. Kontuan epinten (sic) zaitut, bada, neri gertatua, eta ber-bera gertatuko zatzula Jaungoikoaren tribunalean, ni bezela biziitzen bazera.»⁷

LAS CUATRO PRIMERAS PLATICAS

Como hemos indicado, fueron escritas por otro autor. Damos aquí algunas particularidades referentes a varios aspectos.

La *grafía* es del siglo XIX. En cuanto a la *ortografía*, emplea las abreviaturas *C.* por *kristabak* y *n. c.* por *nere kristabak* «cristianos» y «mis cristianos» respectivamente. Escribe *auxe* (12) para expresar el fonema de prepalatal fricativo sordo, lo mismo que hace actualmente la Euskaltzaindia; *egin* con -ñ final: «eguiñ» (29); *beñ edo beñ*, por *bein edo bein* (20); *zein* con -ñ final también: «ceñ» (20) y «ceiñ» (28).

En punto a *morfología*, diremos que emplea *zeren* (10 y 12) por *zerren*. Sistemáticamente escribe *kristaba* (17) por *kristaua*, deshaciendo el hiato, salvo una vez *kristauen* (19). Despoja de su -a final a palabras como *bidegabekeria*, que escribe *bidegabekeri* (26). Casi siempre usa *Jainkoa* (1) en vez de *Jaungoikoa*. No repara en usar voces claramente castellanas, como «ya» (17). Aparece una vez la voz *eze* (28) con el significado de «además de», más bien que el de «no solo».

En el campo de la *sintaxis*, hay más abundancia de oraciones de relativo con *zein* («ceñ») y no falta alguna con *non* «donde» (17). Las oraciones

⁷ No incluimos aquí la “parábola” del dragón y el hombre que nombran al zorro por árbitro de su discusión. Aparecerá en la revista “Cuadernos de etnología y etnografía”, donde se comparará su contenido con una “fábula” parecida de Urdiáin y que ha sido publicada y comentada por Julio CARO BAROJA, a quien se la comunicó José María SATRÚSTEGUI. V. Julio CARO BAROJA, *Un pueblo de encrucijada*. “Revista de Dialectología y Tradiciones Populares”, Tomo XXV, cuadernos 1.^o y 2.^o (Madrid, 1969) pp. 3-29.

MANUSCRITO DE PLÁTICAS EN EUSKERA GUIPUZCOANO EN LOS...

causales suele formarlas con *zeren* en vez de *zerren*, y también con *zergatik* (27): *Zergatik? Zergatik, lenengo, danik justuena izanda ere, iñork ezin aseguratu dezake guardatu dala beti inozenzian* (28). «¿Por qué? Porque, primero, aun siendo el más justo que cabe, nadie puede asegurar que se ha mantenido siempre en la inocencia».

En las oraciones consecutivas emplea *ze* «que» en lugar del *eze* de la mayoría de las pláticas: *Ain damu andia artu zuan (San Pedro) pekatu onezaz, zé bizi izandu artean negar egin zuan* (29) «Tan grande fue el arrepentimiento de San Pedro por este pecado, que lloró durante toda su vida».

Vamos a poner punto final a este apartado transcribiendo algunas *formas verbales* típicas del autor y que en ocasiones coinciden con las del otro autor del manuscrito.

BAGENDU. Nosotros ello. *Pekaturik egin ez bagendu* (29) «Si no hubiéramos pecado».

BAGINDU. Nosotros ellos. *Despreziatu ez bagindu zure benefizioak* (29) «Si no hubiéramos despreciado tus beneficios».

BALIOE. Ellos le. *Birtute ederrari jarraitu balioe* (11) «Si hubieran seguido la hermosa virtud».

DAKAIZKI. El ellos o los. *Birtute onek...dakaizki probetxu ta bentajak* (11) «Esta virtud acarrea provecho y ventajas».

DAKAIZKIZU. Tú ellos o los. *Soberbia infernuko! Eta zer kalteak dakaizkizun* (11) «¡Soberbia infernal! Y ¡qué perjuicios acarreas!».

DARAMELA. Ellos ello. *Ezin ukatu ere diteke kristau askok ta askok daramela bide guziz okerra* (20) «Tampoco se puede negar que muchos cristianos siguen un camino muy torcido».

DEGIOGUN. Nosotros ello a él. *Eskatu degiogun gure pekatuen barkazioa* (29) «Pidámosle el perdón de nuestros pecados».

DITUE. Ellos los. *Arri jasa izugarriak ikaratuko ditue pekatari tristea* (2) «Terribles pedregadas espantarán a los pobres pecadores».

DEZEN. Ellos lo. *Guztiak ezagutu dezen bere justizia* (1) «Para que todos conozcan su justicia».

DUE. Ellos lo o ello. *Ezagutuko due Jainkoaren Semea dala* (1) «Conocerán que es el Hijo de Dios».

GIÑUZEN. El a nosotros. *Kristau egin giñuzen (Jainkoak)* (17) «Dios nos hizo cristianos».

ZEUKEEN. Ellos ello. *Elizaren pillare sendoenak onenbeste kontu bazeukeen humiltasunaz* (12) «Si las columnas más firmes de la Iglesia tenían tan gran cuidado de la humildad».

FRANCISCO ONDARRA

ZEZAN. Ellos ello. *Desengañatu zitezen eta ezagutu zezean (sic) zein zan Mesias* (9) «Para que se desengañosen y conocieran cuál era el Mesías».

ZIOZKEEN. Ellos los a él. *Juduen agintariak bialdu ziozkeen sazerdoteak eta lebitak galdetzera San Joani* (17) «...los enviaron a San Juan».

ZUEN. Ellos ello. *Batzuek uste zuen beren maisua zala Mesias* (9) «Algunos creían que su maestro era el Mesías».

INDICE DE LAS PLATICAS

El índice que vamos a dar no es el que está escrito a máquina al final del manuscrito. Lo hemos formado a base de los encabezamientos de las pláticas. Indicaremos también la página en que comienza cada plática.

Domínica Primera de Adviento (pág. 1 en adelante).

Domínica Segunda del Adviento (9).

Domínica Tercera del Adviento (17).

Domínica Cuarta del Adviento(25).

Para la Domínica Primera de Adviento (33).

Para la Segunda Domínica de Adviento (41).

Para la tercera Domínica de Adviento (49).

Para el día de la Natividad del Señor (65).

Para el día de San Esteban, 26 de diciembre (74).

Para el día de San Juan, 27 de diciembre (83).

Para el día de los Santos Inocentes, 28 de diciembre (92).

Para el día de la Circuncisión del Señor (101).

Para el día de la Epifanía del Señor (110).

Para el domingo infraoctavo o primero después de la Epifanía del Señor (120).

Para el segundo domingo después de la Epifanía del Señor (129).

Para el tercer domingo después de la Epifanía del Señor (139).

Para el cuarto domingo después de la Epifanía del Señor (148).

Para el quinto domingo después de la Epifanía del Señor (158).

Para el sexto domingo después de la Epifanía del Señor (166).

Para el domingo de septuagésima (179).

Para el domingo de sexagésima (188).

Para el domingo de quincuagésima (199).

Para el domingo de Ramos (213).

Para el día de Pascua de Resurrección (223).

Para el segundo día de Pascua de Resurrección (233).

MANUSCRITO DE PLÁTICAS EN EUSKERA GUIPUZCOANO EN LOS...

Para el tercer día de Pascua de Resurrección (242).
Para el primer domingo después de Pascua de Resurrección (251).
Para el segundo domingo después de ídem (261).
Para el tercer domingo después de ídem (269).
Para el cuarto domingo después de ídem (280).
Para el quinto domingo después de ídem (290).
Para el día de la Ascensión del Señor (299).
Para el domingo primero después de la Ascensión del Señor (310).
Para el domingo de Pascua de Pentecostés (319).
Para el segundo día de Pascua de Pentecostés (328).
Para el tercer día de Pascua de Pentecostés (337).
Para el domingo de la Santísima Trinidad (346).
Para el segundo domingo después de Pentecostés (358).
Para el tercer domingo después de ídem (367).
Para el cuarto domingo después de ídem (376).
Para el quinto domingo después de ídem (385).
Para el sexto domingo después de ídem (395).
Para el séptimo domingo después de ídem (405).
Para el domingo octavo después de ídem (413).
Para el domingo nono después de ídem (424).
Para el domingo décimo después de ídem (433).
Para el domingo 11 después de ídem (442).
Para el domingo 12 después de ídem (452).
Para el domingo 13 después de ídem (461).
Para el domingo 14 después de ídem (471).
Para el domingo 15 después de ídem (480).
Para el domingo 16 después de ídem. (493).
Para el domingo 17 después de ídem (503).
Para el domingo 18 después de ídem (513).
Para el domingo 19 después de ídem (522).
Para el domingo 20 después de ídem (532).
Para el domingo 21 después de ídem (541).
Para el domingo 22 después de ídem (551).
Para el domingo 23 después de ídem (560).
Para el domingo 24 y último de ídem (567).

Francisco ONDARRA

